



Ba al dakizu zer den euskara? Zer gara euskara ez bagara? Ez da hizkuntza bat soilik, bizitzeko modu bat baizik. Euskaldunik ez badago, zer izango da Euskal Herria? Eta euskal herririk ez badago, zer izango da gutaz, euskaldunotaz? Galdera guzti horiek, askoek ditugu buruan, baina dagoeneko gure buruari klik egiteko unea iritsi da. Egon harro zure hizkuntzarengan. Gu euskara gara, beraz, ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira, Euskal Herrira!

Urteetan zehar, zapaldua izan da euskara, baita euskaldunok ere. Euskal Herria betidanik borrokan egon izan da, gure arbasoak gure etorkizunarengatik borrokatu zuten. Halere, ez dugu inoiz borroka eten eta hala izan behar du betirako. Gazteon eskuetan dago gure etorkizuna, eta euskararen aldeko lekukoa. Euskara mehatxu handi bat ari da bizitzen, estatuen eta gobernuen partetik, horregatik, euskararen eta euskaldunon kultura desagertzera kondenatzen gaituzte. Horri aurre egiteko prest gaude, gure txanda da, Euskararen txanda da. 15.000 urteko hizkuntza bat ezin dugu zapuztu gure arbasoek belaunaldiz belaunaldi aldeztu eta mantendu zutena. Eta horregatik euskaldunok euskaraz hitz egingo dugu. Euskaraz bizi izan gara bizi gara eta biziko gara! Euskara plazara, herri harroa plazara.

Euskara ginen, euskara gara, euskara izan nahi dugu eta euskara izango gara. Euskaraz harro gu, harro herri, harro hiztun, eta harro entzule. Mintzatu euskaraz, hori da eta, euskaldun egiten gaituena. Hitzekin euskaldun guztien bihotzetara heldu gaitezke. Hitzekin eman euskara elkarri. Euskaldunok maite duguna euskal hitzekin ematen diogu elkarri. Euskal Herria, euskararen herria, euskaldunon bizia. Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira, ongi etorri Euskal Herrira!